
HILEN
LOGIKA
EZKUTUA

JABIER MUGURUZA



n a r r a t i b a •

erein

HILEN LOGIKA EZKUTUA

Narratiba, 86

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezka kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko urrian

Maketazia:

Erein

© Jabier Muguuruza

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-942-5

L. G.: SS-1287/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Jabier Muguruza

HILEN LOGIKA EZKUTUA



erein

Maiteri

HILEN LOGIKA EZKUTUA

*Inoren heriotza dela-eta negar egiten dugunean,
haren esperantzen galerak egiten digu min.*

JOHN BERGER

Pili eta Asuni, in memoriam

Hil berriak, behin hilez gero, hilda egoten dira. Eta hilen mundu ustez urrun horretan hasten dira orduan bizitzen, horrela hitz egitea baldin badago, behintzat.

Mundu desberdina da eurena, nolabait esateagatik, eta hil berriek mundu horretako erritual eta tradizio propioekin egiten dute topo, ustekabeen. Jakina, euren gisako erritual eta tradizioak izaten dira, guk, bizidunok, ezagutuz gero, eszentriko samarrak kontsideratuko genituzkeenak.

Ohitura zahar edo tradizio bitxi horietako bat, esaterako, honakoa da: norbere hiletan bildutako jendearen artean, hil berriak pertsona bat aukeratu beharra izaten du, aurrez jakinda pertsona horixe izango dela, hain zuzen ere, hurrengo hil berria. Ez da zeregin samurra, esan gabe doa. Hil berria zaharra bada, tira, hainbestean: dozenaka batzuk bilduko dira hiletan, zaharrak gehienak, hil berria bezalaxe, eta horien artean bat aukeratzera mugatuko da eginkizun xelebrea; gaztea izanez gero, berriz, asistentzia kontuak direla

medio, asko konplikatatu ohi dira gauzak, gazte bereziki baskarti bati buruz ari ez bagara, behintzat.

Ez da zeregin samurra izaten, ez, eta ez da guretzat ohitura ulertzen erraza, baina kontuan har dezagun, ohizko juzgu txarretan hasi baino lehen, oso mundu desberdinak direla bizidunena eta hildakoena, baita ohitura eta tradizioei dagokienez ere.

Beharbada, puntu honetara ailegatuta, komeniko litzateke aipatzea, kultura honetako hil berrien artean, ez direla gutxi izan tradizio horren oinarrian bizidunen ezkontzaren arrastoren bat detektatu izan dutenak; ez alferrik, jakina denez, ezkonberriek bikote bat aukeratzen dute gonbidatuen artean, ezkontzen hurrengoak izan daitezten. Ez dira gutxi izan, esan bezala, gaur egungo ezkontzaren arrastoren bat begiztatu dutenak, baina, egia ikusi nahi duenarentzat, desberdintasunak nabarmenak dira oso.

Gainera, lehen ere esan dut, ez da komeni parametro berdinetan neurtzea mundu bateko eta besteko kontuak. Ez da inondik inora komeni.

Geure ikuspuntutik begiratuta, norbaitek bere hiletan bildutako jende multzo handi edo ez hain handi horretan norbait aukeratu beharko balu, esan gabe doa, ia seguru herrera dion horixe aukeratuko luke. “Ze ostia egiten du putaseme alu horrek nire hiletan, bizitza osoan beti izorratzen ibili ondoren? Joan dadila zakurraren ipurdira!” pentsatu eta berehala pertsona horixe aukeratuko luke hil berriak, ia seguru.

Hil berriek, ordea, hil guztiek orokorrean, beste modu batean egiten dituzte euren aukeraketak, begi-bistakoa denez.

Zertan oinarrituta? Ez dakit, ideiarik ere ez, ni biziduna bainaiz eta txiripaz izan baitut honen guztiaren berri; baina beste modu batean egiten dute, hori seguru. Lehenago ere aipatu dut, beste logika batekin funtzionatzen dute, gurearen aldean, guztiz ezberdina den logika batekin.

Duela gutxi, esate baterako, 39 urteko emakume guapa bat hil zen, Bilbo aldean. Gazte joan zen errukarria, gaixotasun krudel baten ondorioz, atzean sufrimendu itzela utzita. Ba, hiletan, kasu hauetan ohizkoa den bezala, jendetza zegoen –elizatik kanpo ere kokatu behar izaterainoko jendetza–, eta emakume hil berriak jendetza hartan nor aukeratu eta beste pertsona gazte samar bat, gizonezkoa, 42 urtekoa, itsusi mortala bera, mundu honetatik joandako emakumearekin oso harreman gutxi izandakoa; bakarrik, noizean behin, tipoaren janari-dendara joaten zela, supermerkatuko erosketa nagusian zer edo zer ahaztua bazuen. Besterik ez. Harreman gutxi, beraz, oso gutxi, eta ona... edo normala, behintzat, inongo arazorik gabea. Ba, koittadu huraxe aukeratu behar emakume hil berriak, alajaina!

Nire tankerako norbaiti galdera asko etortzen zaizkio burura, halako errito berezi baten lekukoa izatea suertatzen zaionean: zergatik aukeratu zuen, ba, emakume guapak halako gizon itsusi mortala, gainera harreman ona, edo normala behintzat, izanda? Ez zuen, ba, han, jendetza hartan, beste inor topatuko, gogoko ez zuena, desatsegin samarra zitzaiena? Nire tankerako pertsona bat pentsatzen jartzen da eta zera bururatzen zaio: zerbait ezkutua izango zuen, ba, emakumeak dendari gizagaixo horren aurka? Edo, auskalo,

beharbada guztiz kontrakoa: lagundu nahian-edo egingo ote zuen, ba, aukeraketa? Kontuak kontu, eta labur esateko, nire tankerako bati burura datorkiona zera da: zertan demontre oinarrিতта egingo zuen, ba, hil berriak hautu txundigarria?

Burura galdera asko etorri bai, baina erantzunak eza-gutu ez, zoritxarrez. Azken finean, lehen ere aipatu dut, nik ez daukat arrastorik ere afera honi buruz, ni momentuz biziduna bainaiz, zorionez-edo biziduna, eta txiripaz izan baitut honen guztiaren berri, aizue. Garbi dudana da –eta ez galdetu zergatik– hil berriek beste modu batean funtzionatzen dutela, beste logika batekin. Zuek nahi duzuenaren pentsatu, baina gure logikaren aldean guztiz ezberdina da eurena, dudarik gabe.

Eta bukatzeko, beste apunte bat, garbi samar ikusten dudana beste kontu bat: euren logika hori ezagutuko bagenu, askoz hobeto ulertuko genituzke hainbat eta hainbat heriotza gure begietara sinestezinak direnak, gure begietara guztiz absurdo eta bidegabe direnak.

Erlea *aldizkarian argitaraturiko ipuina*

OPOR UMORETSUAK

Ni beti mintzo naiz brometan, Romani jauna –esan zuen Pibernat-ek–, lehenbizi denak mintzo direlako brometan, kontrakoa ematen badu ere, kontrakoa ematen duenean batez ere, eta, gero, elkar ulertzeko modurik erosoena delako ere bai.

JOSEP PLA

Jon oporretan dago. Gorrotatzen du oporrak abuztuan hartu beharra, baina lantokian gauzak dauden moduan, ez du ikusi beste ezer proposatzeko zirrikitu handirik.

Ez Jon ez bere bikotea ez dira aurten urrutira joan: Nafarroako erdialdera jo dute, Oliteko merindadera, bertan kanpin batean bungalowa alokatuta. Han, eguraldia bermatuta dago, Anerentzat piztina bi pausotara, biontzat bizikletaz ibiltzeko aukera... Hori gutxi balitz, ederki moldatzen da bera, egunkaria eta hozkailu betearekin. Ez du oporretan askoz gehiagorik behar, lasaitasuna bilatzen baitu, beste ezeren gainetik.

Gainera, autoa hartuta, hamar minutura dute herri koskor bat, eta tira, horrek ere ematen du arratsetan, behin edo behin aspertuz gero, osterata egiteko parada: zerbait erosi, zer edo zer hartu... eta kanpinera bueltan.

Aurten horrela tokatu da: modu apalean ibili behar. Ane lanik gabe geratu da, eta Jon ere behin-behineko egoeran dabil aspaldi honetan. Beste garai bateko oporretarako lekurik ez, beraz.

Gaur, goibel samar esnatu da gizon oraindik gazte samarra. Ez daki zergatik. Bart, amaiera ona eman zioten, bada, egunari. Giro goxoan afaldu zuten, luze aritu ziren Anek izandako azken lan-aukerari buruz: bidaia-agentzia batean, hilean 150 euro, gehi komisio txiki bat saldutako bidaia bakoitzeko. Anek uko egin zion eskaintzari mixerablea iritzita, baina hurrengo batean ez daki zer egin beharko duen. “Hori ere ez ote den iritsiko, Jon, esplotazio-tratua onartu beharra, ezin baita bizitza osoan ezezkoa ematen ibili”, esan zion, besteak beste, afari atseginean.

Bukatutakoan, mahaitik altxa eta platerak jaso gabe ere, gustora aritu ziren larrutan bertako sofan. Berak hala gogoratzen du, behintzat.

Baina gaur, horixe, goibel samar esnatu da gizona. Batzuetan gertatzen zaio: arrazoi jakinik gabe, ezinegon bat, tristura bat, sentitzen du, eta kosta egiten zaio, gainera, horrelakoetan egunari buelta ematea.

Jaiki denerako, bere bikotea ez zegoen ez bungalowean ezta portxe txikian ere, eta pentsatu du goizean goiz bizikleta hartuta, maiz bezala, paseo bat ematera joango zela.

Beraz, gimnasia-ariketa batzuk egin, dutxatu, kanpineko tabernan egunkaria erosi, eta gosaria prestatzera jarri da gizona: ogi txigortua olioarekin, eta kafea. Maite du goizean kafearen usaina eta ogi txigortuaren zaporea.

Egunkariaren orrialdeetan berri ikaragarriak irakurri ditu; abuztuari, haren ustez, ez dagozkion berriak, eta berri etorkizuneko munduari buruz galdera handiak planteatzen dizkietenak: Egipton eta Sirian kristoren triskantzak,

Japoniako zentral nuklearreko ur erradioaktiboa itsasora heltzen hasia...

Agobio punttu bat ere sumatu du, berri horiek irakurrita. Umerik ekarri ez izana leporatzen diete, batzuetan, zenbait lagunek, brometan-edo, baina nola umeak ekarri mundu honetara? Nola planteatu horrelakorik, nahiz eta adin aldetik Ane jadanik mugan ibili? Zer argumenturekin? Krisialdi ekonomikoaz ez hitz egiteagatik...

Laster iritsi da beste orrialde batera non berri baikorragoak ere irakur daitezkeen: tipo batek –“irakasle eta umorean aditu” dela esaten zaigu–, hitzaldia eman berri omen du EHUKo Uda Ikastaroetan. Egunkariak, egokiera probestuz, elkarrizketa egin dio irakasleari, bere ikuspuntua azaldu dezan.

Bertan, Joni biziki interesgarriak iruditu zaizkion kontuak planteatzen ditu adituak. Batzuekin bat dator erabat; besteak beste, hauekin: “Maitasuna egin aurretik, barre egin; ondoren, barrez jarraitu”, “Umorea lanerako eta bizitzeko beharrezko tresna da”, “Osasuna, dirua, lana eta abar galdu ditzakegu, baina inork ez digu umorea kenduko”.

Beste batzuk, ordea, zalantzaragoak iruditu zaizkio, bereziki ondorengoak: “Badirudi pertsona batzuek triste bizitzea aukeratu dutela, eta haiei zaila da laguntzea”. Hori dudazkoa iruditu zaio, bai, ze, urrutirago joan beharrik gabe, goiz hartan bertan berak ez du aukeratu goibel esnatzea, hori seguru, eta beste hainbat egunetan ere, alai jaikitzen den horietan, ez da erabaki pertsonalaren ondorioa izaten, ez horixe.

Pentsamendu lauso-udatiar horietan murgildurik, konturatu da sentsazio fisikotik ere zer edo zer baduela bere egoerak. Aurpegiaren eta sintoma fisiko batzuk sumatzen ditu, nabarmen. Tristura hori barrenean dago, edo barrenbarrenetik dator, behintzat. Seguru dago bera: norbere borondateaz haratago, badaude bestelako faktoreak ere gure aldarteari eragiten diotenak.

Kafe-kikara eta ogi txigortuaren platera jaso du, mahaietik leku gehiago egiteko, eta egunkariari begiratu ematen jarraitu du, lasai-lasai.

Segidan, kirol-orriak datoz. Ez du kirolak garai batean adina erakartzen, dexente aldendu da mundu horretatik, futboletik bereziki, baina batzuk pixka bat jarraitzen ditu oraindik ere, batez ere pilota. Kiroletako orri nagusian, hemengo futbol-talde bateko mutilaren egundoko argazkia ageri da, sekulakoa, ez sinestekoa: orrialdea osorik hartzen du, goitik behera, futbolari gaztearen argazkitzarrak. Jon harrituta geratu da, egunkari ezkertiarra eta konprometitua baita erosi duena. Egia esan, egunkari horretatik ere, kiroleetatik bezala, gero eta urrutiago sentitzen da, baina segitzen du erosten, oraingoan.

Kuriositatez, jolas moduan, oporretan beste zeregin askorik ez du eta, konprobazio bat egitera jarri da gizona. Eta emaitza, berak suposatzen zuena izan da: egunkari osoko argazkirik handiena da bera, alde oso handiz, gainera.

Irribarre zabala eskaintzen die irakurleei mutil euskaldunak, zoriontsu, garaileen keinua egiten duela. Kirol-arropa jantzita darama, Nike markaren ikurra ageri-agerian.

Begiratu du argazkia behin eta berriz, goitik behera eta behetik gora, eta, umorean aditua den irakaslearen aholkuak jarraituz, barre egin du. Barre eta barre gehiago, gero eta ozenago, algaraka, baita malkoak ateratzerainoko barreak ere.

Halako batean, Ane azaldu da, bizikleta gainean. Harrituta begiratu dio, ikusten ari dena sinetsi ezinik.

Jonek berehala eten du ariketa. Ez du gogoan sekulan, bere bitzta osoan, hain babalore, hain absurdu eta erridikulu sentitu izana.